



Osakidetza



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

LANKIDETZA-HITZARMENA, OSAKIDETZAREN ETA EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN (AURRERANTZEAN, EUDEL) ARTEKOA. HORREN BIDEZ, AGERRALDI EPIDEMIOLOGIKOETAN OSAKIDETZAK EUDELI ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDE ETA ORGANISMOEI ZUZENDUTAKO MATERIALA HORNITZEKO BALDINTZAK ZEHAZTEN DIRA.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 1ean.

BILDU DIRA

Alde batetik, **Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea**, Osakidetzako Administrazio Kontseiluko presidentea den aldetik, Ente Publikoaren ordezkari gisa jarduten duena, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan aurreikusitako Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialen 7. artikuluan esleitutako ahalmenen arabera.

Eta bestetik, **Gorka Urtaran Agirre**, EUDELeko presidente den aldetik, EUDELen Estatutuek ematen dizkieten eskumenak baliatuz (2016ko apirilaren 15eko Batzar Orokorrean onartu ziren estatutu horiek).

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE:

I. Osakidetza Osasun Sailari atxikitako Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa da, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun arloko zerbitzuak emateko ardura duela, eta bere jarduerak osasuna sustatzea, gaixotasunak prebenitzea, sendatzea eta errehabilitatzea dituela helburu, ondoko arau hauetan ezarritakoa betez: ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa; irailaren 15eko 1030/2006 Dekretua, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzuen zorroa duena, eta estatu zein autonomia mailan aplikatzekoak diren gainerako arauak.



Osakidetza



II. Osakidetzak, izaera publikoko osasun-zerbitzuen emaile den aldetik, baliabide material eta giza baliabide egokiak izan behar ditu ezarrita, eman zaion lana egiteko.

III. COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoerak eragin zuen Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia izendatzea.

IV. Martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zen estatu osoan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez. Estatuko lurralde osoan Osasun Sistema indartzeko neurriak ezarri ditu 12. artikulua, eta zera aurreikusi du: autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazio publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, dagozkien osasun-zerbitzuen kudeaketari eustea, eta zerbitzu horien funtzionamendu egokia bermatzea uneoro.

V. COVID-19aren pandemiaren testuinguruan, eta urtea amaitu baino lehen hura berriz sortzeko aukera egon daitekeela ikusita, krisiari aurre egiteko beharrezkoa den materialaren erosketaren zentralizatua egiteak lehentasun guztia du. Merkatuen kolapsoak, lehengaien hornikuntza-arazoek, salgaien zirkulazio askearen mugek, pandemiak jotako estatuek ekoizpen nazionalen egindako esku-hartzeek eta abarrek merkatu-egoera bat sorrarazi dute, non hornikuntzak ziurtatzeko beharrezko tresna bihurtu diren kontratazio-bolumena, balizko hornitzaileekiko elkarriketa espezializatu eta zentralizatua eta negoziazio-posizioa indartzea.

II. Ildo horretan, kontuan hartu da Osakidetzak agerraldi epidemiologikoekin lotutako etorkizuneko osasun-krisiei aurre egiteko beharrezko materiala erosteko zentral gisa jarduteak erraztu egin dezakeela Euskal Sektore Publikoak material-stock estrategiko bat eskuratzea, etorkizuneko agerraldiei aurre egiteko –ezin baita baztertu inola ere etorriko ez direnik–, unibertsaiki bana daitekeen txerto bat lortzen den bitartean.

VI. Materiala Euskal Autonomia Erkidego osoan banatuko dela bermatzeko, Osakidetzak zentro logistiko bat du, eta bertan zentralizatzen dira materiala jasotzeko, biltegitratzeko eta banatzeko lanak, hala eskatzen duten erakunde guztientzat.



Osakidetza



EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

VII. Azaldutakoa aplikatuz, Gobernu Kontseiluak, 2020ko uztailaren 21ean onartutako Erabakiaren bitartez, eskuduntza eman dio Osakidetza Ente Publikoari aurrerantzean gerta litezkeen agerraldi epidemiologikoen ondoriozko osasun-krisiei aurre egiteko beharrezkoa den materiala erosteko (Zuzendaritza Nagusiaren bitartez), Euskal Sektore Publiko osoaren premiei erantzuteko, eta horretarako erosketen zentral gisa jardungo du, aipatutako Erabakiaren **1. ERANSKINEAN** zerrendatutako materialei dagokienez.

VIII. Hitzarmen hau sinatuta, **EUDELe**k osasun-larrialdi horien ondorioz izan daitezkeen osasun-materialen beharrei aurre egiteko behar den materiala lortu nahi du, eta stock estrategiko bat lortu, gerta litezkeen osasun-krisiei aurre egiteko, berezko dituzten eskumenen esparruan sortzen diren premia guztiak material horrekin hornitzen direla bermatzeko.

IX. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikulua arabera, administrazio publikoen arteko elkarlana lankidetzaz hitzarmenaren bidez arautu behar da.

Hori dela bide, bi alderdiek, beren burua behartzeko gaitasuna onartzen dutenez, Lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Osakidetzak **EUDELI 1. ERANSKINEAN** zerrendatutako materiala hornitzeko baldintzak arautzea, agerraldi epidemiologikoen ondorioz sor daitezkeen osasun-larrialdien ondoriozko beharrei erantzuteko eta material hori bere eskumenen esparruan hedatzen diren jardueraz hornitzen dela bermatzeko.



Osakidetza



Bigarrena.- Osakidetzak entregatu beharreko materiala

Osakidetzak hornitzen dituen materialak hitzarmen honen **1. ERANSKINEAN** adierazitakoak dira. Bertan, hitzarmena sinatzen den egunean indarrean dauden kontsumoen zenbatespenak eta gutxi gorabeherako prezioak zehazten dira, aipatutako material bakoitzerako.

A priori, eta oro har, materialak hileko zati proportzionaletan entregatuko dira Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta zortzigarren klausulan araututako Jarraipen Batzordearen esku utziko da aurreikusitako kontsumoen zenbatespena eta periodifikazioa aldatzeko edozein planteamendu.

Hirugarrena.- Materialen prezioa

Materialen prezioa Osakidetzarako erosketa-kostuaren berdina izango da, materialetarako egindako erosketen batez besteko prezio haztatuaren arabera kalkulatuta.

Laugarrena.- Materialak entregatzeko epeak

Bigarren Klausulan adierazitakoari jarraiki, a priori, eta oro har, materialak hileko zati proportzionaletan entregatuko dira Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen esku utziko da aurreikusitako kontsumoen zenbatespena eta periodifikazioa aldatzeko edozein planteamendu.

Osakidetzak konpromisoa hartzen du materialak aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera entregatzeko zehazten diren tokietan. Banaketa Osakidetzaren biltegiatze logistikoko zentrotik egingo da, une bakoitzean kontratatuta dituen garraiobideen eta entregen bidez.

Hornitutako materiala entrega-puntu bakoitzean jasotzeaz arduratzen denak, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, emate-agiria edo entregatze-agiria sinatuko du, jasotakoarekin ados dagoela frogatzeko.



Osakidetza



Nolanahi ere, eta banaketak eta entregak hobeto funtziona dezaten, **EUDELEKO** arduradunak Osakidetzako arduradunari jakinaraziko dio gertatutako edozein gorabehera (garraioarekin, entrega-epeetan izandako atzerapenekin, hornitutako ondasunetan edo haien bilgarrietan izandako akatsekin eta materialen hornidurarekin zerikusia duen guztia), kontratuei buruzko legerian ezarritakoaren arabera hartu beharrekotzat jotzen diren neurrien ondorioetarako, erantzukizunak eskatzea barne, hala badagokio.

Bosgarrena.- Fakturazioa eta ordainketa

Osakidetzak **EUDELI** fakturatuko dio entregatutako eta jasotako materiala, Hirugarren Klausulan xedatutakoaren arabera, eta Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bidez zehaztuko dira fakturazio- eta ordainketa-epeei buruzko alderdiak.

Entregatutako eta onartutako eskaera bakoitzari dagokion fakturazioan, entregatutako materialen zenbatekoari, biltegiatze-, manipulazio-, garraio- eta entrega-kostuei dagokien zenbatekoaren ehuneko bost gehituko zaio.

A priori, eta oro har, hitzarmen hau sinatzen duen alderdiari Osakidetzak zuzenean fakturaztea aurreikusten da. Hala ere, Jarraipen Batzordearen bitartez, beste fakturazio-egoera bat zehaztu ahal izango da, udalen, mankomunitateen eta **EUDELI** atxikitako edo haren mendeko gainerako toki-erakundearen arabera, bakoitzari zuzenean fakturatzeko, egokitzen bada.

Seigarrena.- Lotura- eta komunikazio-organoak

1.- Prozedura orokorra

Hitzarmen honetan araututako gaiari buruzko alderdien arteko komunikazio oro idatziz egin beharko da, eta posta elektronikoz bidali beharko zaie alderdiek une bakoitzean izendatzen dituzten harremanetarako pertsoneri, bai eta jarraian adierazten diren helbideetara ere.

2.- Harremanetarako pertsonak

Komunikazioetarako, honako pertsona hauek izendatu dituzte alderdiek:

(a) OSAKIDETZA:

- Helbidea: Araba Kalea, 45, 01006 Gasteiz, Araba
- Noren izenean: Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoetako zuzendariordea
- Posta elektronikoa: akzo@osakidetza.eus
- Telefonoa: 945006251

(b) EUDEL:


- Helbidea: Ercilla kalea 13, 48009 Bilbao, Bizkaia.
- Noren izenean: Antolaketa-arloko burua
- Posta elektronikoa: jintxausti@eudel.eus
- Telefonoa: 944231500



Zazpigarrena.- Erantzukizunen erregimena

A priori, eta oro har, Osakidetzak bere gain hartzen du hornitutako ondasunei eragin diezaieketen akatsak edo okerrak zuzentzeko betebeharra, erakunde hartzailleak aldez aurretik modu frogagarrian jakinarazita, eta behar izanez gero, ordezkatu eta berriro hornituko ditu.

Nolanahi ere, kasuan-kasuan Osakidetzak erantzukizunak eskatu ahal izango dizkio materiala hornitzen duen enpresari.



Hala ere, Osakidetzak ez du inolako erantzukizunik izango entregatutako ondasunetan erakunde hartzaillearen manipulazio eta/edo biltegiatze desegokien edo bidegabeen ondoriozko akats edo akatsei dagokienez.



Osakidetza



Zortzigarrena.- Jarraipen Batzordea

1.- Hitzarmenari jarraipena egiteko batzordea sortu da. Honako hauek osatuko dute:

a) OSAKIDETZAREN aldetik:

- Ekonomiako eta Finantzako zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.
- Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen zuzendariordea edo Aurrekontuak Kudeatzeko zuzendariordea, edo haiek eskuordetzen dutena.

b) EUDEL-en aldetik:

- Antolaketa-arloko burua edo hark eskuordetzen duena.
- Kontratazioko eta ondareko teknikaria edo hark eskuordetzen duena.

2.- Batzorde hori arduratuko da hitzarmen honetan araututako gai guztiak ebazteaz, bai eta hitzarmena eta haren helburuak gauzatzeari eta/edo betetzeari buruz sor daitekeen beste edozein gai ebazteaz ere, eta edozein unetan bildu ahal izango da alderdi sinatzaileetako edozeinek eskatuta.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena aldatzea

Hitzarmen honen edozein aldaketa idatziz formalizatu beharko da.

Hitzarmena berrikusteko ekimena alderdi sinatzaileetako edozeini dagokio, eta beste aldeari jakinarazi beharko dio, hitzarmen honetan aurreikusitako edozein bide erabiliz.

Prozedura berari jarraituko zaio Hitzarmena aldatzeak legezko edo arauzko aldaketak eragiten ditutenean.

Hamargarrena.- Indarrean jartzea, indarraldia eta hitzarmenaren suntsiarazpena

1.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean.

2.- Indarraldia 2021eko martxoaren 31ra arte luzatuko da; nolana ere, osasun-krisia gainditu eta merkatua normaltasunera itzultzen bada, data hori baino lehen indargabetu ahalko da.



Osakidetza



EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

3.- Edonola ere, indarraldi hori igarotakoan, edo hemen ezarritakoa berritzea komenigarritzat jotzen bada, beste hitzarmen bat sinatu beharko da, edo bestela, hau luzatu.

4.- Hitzarmenaren indarraldiari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- a) Erakunde sinatzaile biak hala adostea, eta idatziz jasotzea.
- b) Hitzarmenaren xede diren jarduerak garatzeko bat-bateko, legezko edo gauzako ezintasuna.
- c) Alderdietako edozeinek hitzarmen honetako klausularen bat modu larrian ez betetzea.

Hamaikagarrena.- Jurisdikzioari men egitea

Lankidetzeta-hitzarmen hau aplikatzean sor daitezkeen gatazka judicial guztietarako, administrazioarekiko auzien jurisdikzio eskudunaren mende jartzen dira bi alderdiak.

Eta ados daudela frogatzeko, alderdiek hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Gorka Urtaran Agirre jn.
EUDELeko presidentea

Gotzone Sagardui Goikoetxea and.
Osakidetzako Administrazio Kontseiluko
presidentea



1. ERANSKINA

Materiala	Kopurua	Unitateko prezioa*	Guztira
MANTAL IRAGAZGAITZ EZ-BERRERABILGARRIA	7.827	2,80	21.915,60
MANTAL IRAGAZGAITZ BERRERABILGARRIA	8.080	7,77	62.781,60
MANTAL ARRUNTAK (TNT)	2.600	1,91	4.966,00
BABES-JANTZIA	7.784	10,08	78.462,72
OINETAKO BABESAK	30.120	0,06	1.807,20
BESOETAKO BABESAK	19.430	0,08	1.554,40
GEL HIDROALKOHOLIKOA (LITROAK)	7.851	4,62	36.271,62
TXANOAK	20.020	0,08	1.601,60
ESKULARRU ARRUNTAK (NITRILOZKOAK)	881.814	0,12	105.817,68
ESKULARRU ARRUNTAK (BINILOZKOAK)	400.950	0,07	28.066,50
FFP2 MASKARAK	111.054	2,52	279.856,08
FFP3 MASKARAK	2.480	2,55	6.324,00
IIR MASKARA KIRURGIKOAK	1.271.257	0,32	406.802,24
ARMAZOI INTEGRALEKO BEGI-BABESA	1.118	8,41	9.402,38
			1.045.629,62

Oharra*:Prezio horiek orientazio gisa baino ez dira ematen, eta Osakidetzaren informazio-sistemek 2020ko urriaren 1ean kalkulaturakoak dira; biltegi zentralizatutik ateratzen den unean stockaren batez besteko prezio haztatua fakturatuko da.